

HAIZEA

Haizea taldea 1976. urtean osatu zen eta 1980an desagertu zen.

Bi disko atera zituzten: Haizea eta Hontz gaua.

Taldeko partaideak: Xabier Lasa, Carlos Busto, Xabier Iriondo, Gabriel Fernández, Amaia Zubiria eta Txomin Artola.

Folk musika egiten zuten.

Kantu ospetsuak: Goizeko euri artean, Loa Loa, Oreinaren bila, Ura ixuririk eta Arrosa xuriaren azpian.

Aho zabalik utzi zituen entzuleak *Haizea* diskoak (Herri Gogoa, 1977). Frankismoaren azken urteetako euskal musikaren moldeak hautsi zituen lan gozo eta berritzailea izan baitzen. Taldearen ezaugarriei segituz, kantu tradizionalen bertasioak daude, baina baita Artola eta Lasaren kantu bana ere. Lehen diskoa kaleratu ondoren, jaialdi aunitz egin zituzten Euskal Herrian barna.

Goizeko euri artean kanta:

<https://www.youtube.com/watch?v=TxAB7JKnH84>

Goizeko euri artean (Haizea- Txomin Artola)

Goizeko euri artean aterkiñarik gabe

Eskuak sakelean, pena bat bihotzean

Etxetik urruti nago kalean bakarrik

Goizeko euri artean gitarra bakarrekin.

Lan bat hartu behar dut gaur zerbait bazkaltzeko

Inork ez nau hartu nahi arrotza naizelako,

Kalean abestu dut nere herriko kanta,

Jendeak zerbait utzi du goizeko euri artean.

Ez horrela ibili, neskatxak esaten dit

Hobeki hemen bizi bi biok elkarrekin,

Batzuetan galdetzen diot nere buruari

Zertarako naizen hemen,

Zergatik ari naizen

Betiro kezkatzen.

Baina aurrera joan behar dut bidea hartu arte

Bakarrik izan behar dut hori lritsi arte,

Eta egun on batean pozik ikusiko dut

Eguzkia agertzen goizeko euri artean.

Egileak: Mikel Etxabbarri eta Ane Garaikoetxea